

BALOREZKO PROPOSAMENA

Sarrerari aipatu dugun bezala, gure "sagardoteka" proiektuan onura asko sor ditzakegu, izan ere, jateko tokia, hau da, sagardotegia, eta gaua pasatzeko lekua, hau da, dantzalekua edo diskoteka leku berean izango ditugu. Hauek leku berean izanez gero, kotxeekin desplazatu beharrik ez da egongo afaltzeko tokitik dantzalekura joateko eta beraz, bezeroen erosotasuna eta, gutxi bada ere, kotxen erabilera txikiagoak onurak sor ditzake ingurumenean. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu azken puntu hori baina, hala ere, lehen helburua bezeroen erosotasuna bermatzea izango da.



Horrez gain, negozioko lehen puntua, hau da, sagardotegiaren zatia, bertako elikagai eta sagardoarekin aurrera eramatea nahi genuke, izan ere horrela elikagaien eta sagardoaren kalitatea bermatuko genuke eta gure ustez jende gehiago erakarrigo dugu hala egiten badugu.



Gure proiektuaren balioa kuantitatiboa zein kualitatiboa izango da, alde batetik kuantitatiboa izango da, izan ere, gure xede nagusia errentagarritasuna bada ere, arrazoizko prezio bat egiten saiatuko ginatekeelako, betiere, lehen esan bezala, kalitatezko eta bertako elikagaiak edo produktuak erabiliz. Gainera, deskontuak ahalbidetu genitzake gure proiektuaren 2 zatietako (sagardotegia eta diskoteka) bezeroak direnentzat.

Bestetik, proiektuak balio kualitatiboa ere izan dezakeela pentsatzen dugu, arrazoizko prezioak eta kalitatezko produktuak eskaintzeaz gain, gure "sagardotekaren" diseinua modernoa eta erakargarria izatea bermatuko dugulako. Kalitateaz gain erosotasuna bermatu nahi dugu, horretarako sagardotegirako lekua zein diskotekarako sarrerak gure webgunean edo telefonoz eskuratu ahal izango dira.

